

**ANDOINGO UDALEAN  
HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZeko IRIZPIDEAK**

**Udal Euskara Zerbitzua**

**2020ko uztaila**

# AURKIBIDEA

1.	SARRERA .....	1
2.	ERAGIN EREMUA.....	1
3.	ZERBITZU HIZKUNTZAK, HARREMAN HIZKUNTZAK, LAN HIZKUNTZAK.....	2
3.1.	ZERBITZU HIZKUNTZA ETA HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK .....	2
3.2.	KANPO HARREMANETARAKO HIZKUNTZA .....	2
3.3.	LAN-HIZKUNTZA ANDOAINGO UDALEAN .....	3
4.	AHOZKO KOMUNIKAZIOA.....	4
4.1.	HERRITARRARI ZERBITZUA EMATEN ZAIONEAN .....	4
4.1.1.	LEHENENGO HITZA ETA ONDORENGOAK .....	4
4.1.2.	KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALA .....	5
4.2.	BESTE HERRI-ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE PRIVATUEKIKO HARREMANETAN .....	5
4.2.1.	HERRI-ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAN .....	5
4.2.2.	ERAKUNDE PRIVATUEKIKO HARREMANETAN.....	6
4.3.	UDAL BARRUKO HARREMANETAN: LAN BILERAK, TELEFONOZKO HARREMANAK ETA AURREZ AURREKOAK .....	6
5.	IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA.....	6
5.1.	HERRITARRARI ZERBITZUA EMATEN ZAIONEAN .....	7
5.1.1.	HERRITARREN HIZKUNTZA HAUTUA.....	7
5.1.2.	UDALA ETA BERE BAITAKO ORGANISMOEN INPRIMAKIAK .....	8
5.1.3.	TRAMITAZIO ELEKTRONIKOA .....	8
5.2.	HIRUGARRENEKIKO KANPO HARREMANETAN .....	8
5.2.1.	ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAN.....	8
5.2.2.	ERAKUNDE PRIVATUEKIKO HARREMANETAN.....	9
5.2.3.	UDAL BAIMENAK ETA LIZENTZIAK.....	9
5.3.	UDAL BARRUKO HARREMANETAN .....	10
5.3.1.	PROIEKZIO PUBLIKOA DUTEN IDATZIAK .....	10

5.3.2. PROIEKZIO PUBLIKORIK EZ DUTEN IDATZIAK .....	10
5.3.3. BATZORDE ETA BATZARRALDIETAKO DEIALDIAK ETA AKTAK.....	10
5.3.4. BARNE FUNTZIONAMENDURAKO BESTE JARDUERA ESPARRUETAN .....	11
6. KALITATEZKO KOMUNIKAZIOAK .....	11
7. ITZULPENGINTZA.....	12
7.1. EUSKARAREN ERABILERA ANDOINGO UDALERRIAN BULTZATU ETA NORMALIZATZEKO ITZULPEN ZERBITZUA.....	12
7.2. UDAL BARRUKO HARREMANETARAKO ITZULPEN ZERBITZUA .....	12
8. LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORRA.....	13
9. AGINTARI POLITIKOEN HIZKUNTZA-GAITASUNA.....	14
10. ERREGISTROA.....	14
11. DIRULAGUNTZAK .....	14
11.1. DIRULAGUNTZAK UDALERRIKO KULTUR, KIROL ETA AISI ELKARTEEI .....	14
11.2. DIRULAGUNTZAK UDALERRIKO ENPRESA ETA MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUEI.....	15
12. INSTALAZIOEN ETA MATERIALAREN LAGAPENAK.....	15
13. ARGITALPENAK, IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA .....	15
14. KOMUNIKAZIO TELEMATIKOA: TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK .....	16
15. ERROTULAZIO FINKOA ETA NOIZBEHINKAKO OHARRAK .....	17
16. IRAGARKIAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK .....	17
17. HAUTAKETA PROBAK .....	17
18. KUDEAKETA.....	18

## **1. SARRERA**

Osoko Udalbatzak 2013an onartu zituen Andoaingo Udalean Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak. Irizpide horiek, Andoaingo Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2018-2022 aldirako Plana onartzearekin batera berrestez gain osatu eta eguneratu direnak, izan dira azken urteotako erreferentzia nagusia Udalaren jardunean. Erreferentzia nagusia diogu, 1/88 Udal Ordenantza indarrean sartu zenetik Udalak bere jardunerako propio onartutako azken irizpideak horiek baitira, baina ez bakarria, indarrean dagoen legeria orokorrean hainbat eta hainbat irizpide baitago Udalak nahitaez kontuan hartu beharrekoa. Legeria orokor horretan azpimarratzekoak dira:

- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Arauzkotzekoa.
- 123/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza-eskubideei buruzkoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

Legeria orokor horretan nahiz Udalak berak onartu dituen ordenantza, plan eta irizpideetan jasota eta indarrean dauden hizkuntza irizpideak bateratzea da dokumentu honen xedea eta, guztiak bete beharrekoak izaki, eguneroko jardunean irizpide horiek betetzea erraztea.

## **2. ERAGIN EREMUA**

Andoaingo Udalaren organo nahiz administrazio-lansail guztiek eta Udalaren baitako erakunde publikoek bete behar dituzte hizkuntza ofizialen erabilera instituzionalari eta administratiboari buruzko irizpide hauek.

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko xedez hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibide hauetan jasotako irizpideak aplikatuko zaizkie honako hauei ere, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa den 179/2019 Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoari jarraiki:

- Udal zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten enpresak eta entitateak.
- Udal laguntzen onuradunak, hizkuntzaren erabilera alderdi esanguratsua denean diruz lagundutako jardueraren xedean.
- Jabari publikoaren erabilera pribatiboaren eta erabilera komun bereziaren onuradunak.

### **3. ZERBITZU HIZKUNTZAK, HARREMAN HIZKUNTZAK, LAN HIZKUNTZAK**

Andoaingo Udalak hiru harreman mota ditu ardatz bere eguneroko zereginak betetzerakoan: herritarrekikoak, beste administrazioekikoak eta mota askotariko erakunde pribatuekikoak, eta Udalaren barne funtzionamendukoak.

Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntza dira herritarrekin, harremanetako hizkuntza beste administrazio eta mota askotariko erakunde pribatuekin, eta lan-hizkuntza Andoaingo Udalaren barne jardunean.

#### **3.1. ZERBITZU HIZKUNTZA ETA HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK**

Euskal Herriko hiritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko ez ezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Andoaingo Udalak, honako hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie espresuki herritarrei:

- a).-Udalarekin eta bere menpeko organismo orekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- b).-Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro bi hizkuntza ofizialetan jarduteko eskubidea.
- c).-Udalak antolatutako jendaurreko ekitaldietan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jarduteko eskubidea.
- d).-Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan, elektronikoak barne, jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.

Nolanahi ere, Andoaingo gizarte bizitza euskalduntzeko eta euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal izan daitezen, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek eskatzen dutenean euskara bakarrik erabiltzeko hautua egingo da (bereziki hartzaileak euskaldunak direnean, eta haur eta gazteentzako kultur eta aisialdi ospakizunetan).

#### **3.2. KANPO HARREMANETARAKO HIZKUNTZA**

Andoaingo Udalak erakunde publiko zein pribatuekin izaten dituen idatzizko eta ahozko harremanetan, oro har, euskaraz zuzenduko zaie azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzea, betetzea dagokien administrazio publikoei, euskara hizkuntza ofiziala duten organismoei eta euskarazko harremanen aldeko aukera espresuki adierazi duten erakunde pribatuei.

Hizkuntza aukera hori espresuki adierazi ez duten erakunde pribatuekin idatzizko

harremana ele bieran bideratuko da.

Herri-administrazioekiko harreman hizkuntza, ahoz nahiz idatziz, euskara izango da bideragarria den guztietan. Andoaingo Udalak, ETELen 7.6 artikuluan xedatutako jarraituz, hitzarmen edo akordio bidezko sustapen lana egingo du bere euskarazko lansailek edo atalek EAeko beste herri-administrazio bateko atalekin ahoz nahiz idatziz dituzten harremanak gero eta gehiago izan daitezzen euskaraz. Akordio horien bitartez administrazio arteko arnasguneak eratuko dira progresiboki eta lansailetako mikroplanetan jasoko dira akordioak.

Beste herri-administrazio batetik jaso gero Udalarekiko harremanetan euskara erabiltzeko proposamena, Udalak baiezkotzea erantzuna emango dio inola ahal bada. Momentuz ezinena izatekotan, Udalak eskura dauzkan bitartekoak jarriko ditu akordio-proposamena ahalik eta denbora tarterik motzenez onartzeko, eskatzailearekin adostuz.

### **3.3. LAN-HIZKUNTZA ANDOAINGO UDALAN**

Udaleko lansailek eta organo guztiek –informatiboek nahiz exekutiboek- dute beren ohiko lan-hizkuntzat euskara aukeratzeko eskubidea eta, hori eginez gero, organo eta lansaile horien ohiko laneko hizkuntza ere izango da euskara. Euskarazko atalari bere lana nagusiki euskaraz egitea dagokio eta horrek esan nahi du, EEPLAko 3.1 atalean (*Administrazio-atalak, izaera administratiboa eta hizkuntzazkoa*), Udal Legearen 6.2 artikuluan eta 179/2019 Dekretuaren 18.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioz, euskaraz egingo direla:

Euskarazko saila eta administrazio-atalen organoetako deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, akordioak, aktak eta gainerako udal dokumentuak. Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idazteak Udaleko kideren baten eskubideak kaltetzen baditu eta kide horrek legez eta era baliadunean alega badezake ez duela ulertzen dokumentuen hizkuntza, beste hizkuntza ofizialean itzulita emango zaizkio.

Hori betetze aldera, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukaten udal langileei bi hizkuntza ofizialean jarduteko gaitasuna aitortzen zaie eta lan-beharkizunen arabera hizkuntza batean zein bestean erantzun diote lanari, kasu bakoitzean. Horren arabera, dagokien hizkuntza eskakizuna jadanik betetzen duten enplegatuek oro har euskaraz burutuko dute beren lana, eta gainontzekoek elebiduntze plangintzaren barruan euskalduntzen doazen heinean, beren lana pixkanaka-pixkanaka euskaraz burutzeari ekingo diote. Nolanahi ere, euskarazko lansailek edo administrazio-ataletako langileek euskara izango dute ohiko lan-hizkuntza eta, ondorioz, euskaraz sortuko dute nagusiki.

Atal elebidunetan, aldiz, eginkizun batzuetarako euskara izango dute lan-hizkuntza eta beste batzuetarako gaztelania. Atal horietan, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten

langileekin adostu egingo da euren idatzizko eginkizunetan noizko eta zer sortuko duten euskaraz.

Kontratazio berrietan, deialdi publikoz nahiz barne sustapenez betetzen diren lanpostuetan eta lanpostu horrek derrigortasun data duenean, dagokion hizkuntza eskakizuna betetzea eskatu eta bermatuko da, hautaketa prozesuan bertan edota langile finko izan aurretik egin beharreko prestakuntza ikastaroan nahiz praktikaldian. Udalean egin beharreko ordezkapenekin ere berdin jokatu da. Nolanahi ere, legerian jasotako araubidea beteko da kasu guztietan.

Irizpide bera aplikatuko zaie Andoaingo Udal Administrazioa eta bere baitako erakunde publikoetara praktikak egitera datozen ikasleei. Horrenbestez, ikasleei eskatuko zaie berak jardungo duen lanpostuak daukan hizkuntza eskakizun berbera. Dagokion hizkuntza eskakizuna betetzen dela egiaztatzearen ardura praktikaldia egitera doan zerbitzu horretako arduradunak izango du.

#### **4. AHOZKO KOMUNIKAZIOA**

##### **4.1. HERRITARRARI ZERBITZUA EMATEN ZAIONEAN**

Udalak herritarrekin dituen harremanetan bermatu egingo du bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko herritarrak duen eskubidea, beti eta ororen gainetik errespetatuz herritarraren hizkuntza hautua, herritarrarentzako ezerosotasunik eragin gabe errespetatu ere. Herritarrari zerbitzua ematen zaionean, euskarazko harrera eta jarduna bermatuko da. Bereziki, herritarrekin zuzeneko harremana duten zerbitzu guztietan ahozko komunikazioa bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko herritarrak duen eskubidea bermatzeko neurriak hartuko dira.

##### **4.1.1. LEHENENGO HITZA ETA ONDORENGOAK**

Honela jokatu dute herritarrekin harremana duten Udaleko langileak, bai aurrez aurreko harremanetan bai telefono bidezkoetan:

- Herritarrei lehen hitza euskaraz egingo dio langileak, herritarren hizkuntza aukera errespetatzearen kalterik gabe; beraz, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarriketa.
- Langileak euskaraz ez badaki edo herritarrarekin euskaraz moldatzeko behar besteko mailarik ez badu, lankide elebidun bati eskatuko dio laguntza.
- Herritarrak, aukeratutako hizkuntzan jasoko du zerbitzua. Udaleko langileak inoiz ez dio eskatuko herritarrari hizkuntza batean edo bestean mintzatzeko.
- Hartzaile zehatzik ez duten mezuak zabaltzen direnean gailu automatikoen bidez, edo telefonozko informazio-zerbitzuen, bozgorailuen eta antzeko bitartekoen bidez, aurrena euskarazkoa emango da eta ondoren gaztelaniazkoa.

#### **4.1.2. KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALA**

Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.

Udalean duten kargua dela-eta (ordezkari politikoek nahiz udal langileek) parte hartzen duten ekintza publikoetan eta publiko zabalarekin egiten diren lan-bileretan (herriko plangintza, parte-hartze prozesuak, bilkurak...) normalki euskaraz hitz egingo dute euskaraz jarduteko eragozpenik ez duten aipaturiko udal ordezkariak. Betiere herritarren hizkuntza aukera errespetatuz jokatu dute eta herritarrak hautatutako hizkuntza erabiliko dute udal ordezkariak herritarrari erantzuteko.

Jendaurreko ekitaldiak eta komunikabideen aurreko agerraldiak euskaraz gutxienez egingo dira. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen dituztenean, lehenik euskaraz arituko dira.

Hartzaile jakinik ez duten bestelako ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz eta abarrez emandakoak) lehenik euskaraz emango dira, eta ondoren gaztelaniaz. Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta ezaugarriak eskatzen dutenean eta hartzaileak euskaldunak direnean euskaraz izango da mintza-jarduna.

#### **4.2. BESTE HERRI-ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE PRIBATUEKIKO HARREMANETAN**

##### **4.2.1. HERRI-ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAN**

- Andoaingo Udaleko euskarazko lansail nahiz administrazio-atalek ahozko harremanak euskaraz izango dituzte azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzekoa, betetzea dagokien administrazio publikoekin eta euskara hizkuntza ofiziala duten organismoekin, bideragarria den guztietan.
- Herri-administrazio eta organismo horiekin egiten diren lan-bileretan alde aurretik erabakiko da hizkuntzaren erabilera nola kudeatuko den, betiere euskararen erabilera bermatuz.
- Hizkuntza irizpide hauetako 2.2 atalean xedatutakoari jarraiki, Andoaingo Udalak herri-administrazioekin dituen ahozko harremanetarako hizkuntza euskara izango da bideragarria den guztietan. Udal langileek lehen hitza euskaraz egingo dute eta euskaraz jarraituko dute solakidearen ulermena bermatuta badago.
- Udalak hitzarmen edo akordio bidezko sustapen lana egingo du Udaleko euskarazko lansail edo atalek EAEko beste herri-administrazio bateko atalekin dituzten harremanak gero eta gehiago izan daitezen euskaraz.



#### **4.2.2. ERAKUNDE PRIBATUEKIKO HARREMANETAN**

Andoingo Udala, erakunde pribatuekin izaten dituen ahozko harremanetan, oro har, euskaraz zuzenduko zaie euskarazko harreman aukera espresuki adierazi dutenei.

Hizkuntza aukera hori espresuki adierazi ez duten erakunde pribatuekin, berriz, lehen hitza euskaraz egingo du Udalak, solaskidearen hizkuntza aukera errespetatzearen kalterik gabe; beraz, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

#### **4.3. UDAL BARRUKO HARREMANETAN: LAN BILERAK, TELEFONOZKO HARREMANAK**

##### **ETA AURREZ AURREKOAK**

Bere ohiko lan-hizkuntzat euskara aukeratu duten Udaleko lansailek eta organoek, informatibo nahiz exekutiboek, bilerak euskaraz egingo dituzte eta aldibereko itzulpen zerbitzua emango da euskaraz ez dakiten partaideentzat.

Gainerako kasuetan euskaraz aritzeko eskubidea bermatuko da eta dagokien kasuetan aldibereko itzulpen zerbitzua emango da.

Bestelako lan bilerak ere euskaraz egingo dira ahal den kasu guztietan, betiere partaideen hizkuntza hautua errespetatuz eta euskararen erabilera aktiboki sustatuz.

Udaleko kideen arteko telefono bidezko harremanetan nahiz aurrez aurrekoetan euskaraz egingo da lehen hitza, eta euskaraz jarraituko da solaskidearen ulermena bermatuta dagoenean. Elkarrizketa elebidunak izateko behar besteko gaitasun pasiboa duten langile nahiz zinegotziek euskal hiztunei adierazi egingo diete eurekin euskaraz egin dezaketela.

#### **5. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA**

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara erabiliko da:

- a) Euskarazko harremanen zentsuan inskribatutakoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
- b) Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzekoa, betetzea dagokien administrazio publikoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
- c) Euskara hizkuntza ofiziala duten organismoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
- d) Euskarazko harremanen aukera espresuki adierazi duten erakunde pribatuei bidaltzen zaizkien idatzietan.
- e) Errotulu, seinale eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.
- f) Mezua piktogramenez baliatuz erraz ulertzen denean.

- g) Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen ezaugarriek hala eskatzen dutenean.
- h) Euskarazko lansail nahiz atalei dagozkien organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, erabakiak eta aktak euskaraz idatziko dira, euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein udalkideren eskubideak urratu gabe, ETELEko 6.2 artikulua eta Andoaingo Udalean euskararen erabilera normalizatzeko 2018-2022 aldirako planak 3.1 atalean zehazten dutenari jarraiki.

Indarrean dagoen araudiaren arabera mezua bi hizkuntza ofizialetan eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da.

## **5.1. HERRITARRARI ZERBITZUA EMATEN ZAIONEAN**

### **5.1.1. HERRITARREN HIZKUNTZA HAUTUA**

Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarrak biltzen dituen euskarazko harreman zentsuan izena emanda daudenei euskaraz zuzenduko zaizkie Andoaingo Udala eta bere baitako erakundeak, eta euskara erabiliko da haiei bidaltzen zaizkien gutun, agiri eta jakinarazpenetan, eta zentsu horretan daudenen eskariz irekitzen diren espedienteetan. Nolanahi ere, euskararen erroldan izena emanda dutenek aukera izango dute, zenbait arrazoiengatik beharrezkoa dutenean, euskaraz jasotako idatziaren itzulpena eskuratzeko, hirugarren batzuek behar dutelako (abokatuek, senitartekoen, komunitatekoek...)

Euskarazko harreman zentsua biztanleen udal erroldako eguneroko egokitzen bidez sistematikoki eguneratuko da eta, gutxienez bi urtez behin, 18 urte bete berriei zuzendutako eguneratzea egingo da.

Harreman hizkuntza gisa euskara hautatu ez duenari bi hizkuntzetan bidaliko zaizkio idatziak.

Pertsona fisiko eta juridikoen datuak jasotzeko Udalak dituen datu-base eta erregistro guztietan eremu bat jarri behar da pertsona horiek Udalarekiko harremanetarako zein hizkuntza hautatu duten jakiteko. Gauza bera egingo da Udalak herritarren eskura jartzen dituen inprimakietan eta harreman telematikotako formularioetan.

Nolanahi ere, herritarrengandik euskaraz jasotako idatziei euskaraz erantzun die Udalak, eta gainontzekoei oro har, ele bietan. Kasu guztietan bermatuko da erantzuna gutxienez herritarrak erabilitako hizkuntzan izatea.

Hartzaile jakin eta zehatzik ez duten idatziak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita emango dira ezagutzera, euskarazkoa nabarmenduz.

Indarrean dagoen araudiaren arabera mezua bi hizkuntza ofizialetan eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da.

Udalaren lansail bakoitzak bere zerbitzuak euskaraz erabiltzeko aukera dutela nabarmenduko die herritarrei eta interesatuei oro har, zerbitzu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

#### **5.1.2. UDALA ETA BERE BAITAKO ORGANISMOEN INPRIMAKIAK**

Udalak bere zerbitzuak emateko erabiltzen dituen inprimaki guztiek eta herritarrei zuzendutako dokumentazio estandarizatu orokorrak bi bertsio izango dituzte, bata euskarazkoa eta bestea bi hizkuntza ofizialetan dagoena.

Udaleko lansail bakoitzaren ardura izango da bere menpeko zerbitzuetan erabiltzen diren inprimakien hizkuntza kalitatea zaintzea. Hizkuntza kalitatea zaintzeko helburuarekin dagokion laguntza eta aholkularitza zerbitzua jarriko ditu Udal Euskara Zerbitzuak gainerako udal lansailen esku.

#### **5.1.3. TRAMITAZIO ELEKTRONIKOA**

Tramitazio telematikoaren kasuan herritarrak hizkuntza aukeratuko du, euskara edo gaztelania, eta sistemak ematen dizkion jakinarazpenak edo ziurtagiriak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko aukera berrmatuko zaio, herritarrak egin duen hizkuntza hautuaren arabera.

### **5.2. HIRUGARRENEKIKO KANPO HARREMANETAN**

#### **5.2.1. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAN**

Hizkuntza irizpide hauetako 2.2 atalean xedatutakoari jarraiki, Andoaingo Udalak herri-administrazioekin dituen idatzizko harremanetarako hizkuntza euskara izango da bideragarria den guztietan. Udalak hitzarmen edo akordio bidezko sustapen lana egingo du Udaleko euskarazko lansail edo atalek EAEko beste herri-administrazio bateko atalekin dituzten harremanak gero eta gehiago izan daitezen euskaraz. Irizpide hauek jarraituko dira idatzizko harremanetarako:

- Andoaingo Udalarekin harremana euskaraz nahi dutela berariaz adierazi duten herri-administrazioei bidali beharreko idatziak euskaraz sortu eta bidaliko dira.
- Gainerako herri-administrazioetatik jasotako idatziei dagokienez, euskaraz idatzitakoari euskaraz erantzungo zaio. Eta ele bietan nahiz gaztelaniaz jasotako idatziak badira, euskaraz erantzun ahal izango diete lan-hizkuntza euskara duten Udaleko lansailak, lansail horiek euskara izango baitute Euskal Autonomia

Erkidegoko herri-administrazioekiko idatzizko harremanetarako hizkuntza.

- Udalaren ebazpenak, aktak eta erabakiak euskaraz idatzitakoak direnean, euskaraz bidaliko zaizkie kopiak eta laburpenak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari eta Estatukoari, toki-araubideari buruzko oinarrizko legeria jarraituz.

Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzekoa, betetzea dagokien administrazio publikoei nahiz euskara hizkuntza ofiziala duten organismoei euskaraz bidaliko zaizkie idatziak.

Gainerakoetan ele bietan izango da idatzizko harremana.

### **5.2.2. ERAKUNDE PRIBATUEKIKO HARREMANETAN**

Andoaingo Udalak, erakunde pribatuekin izaten dituen idatzizko harremanetan, erakunde pribatuaren hizkuntza hautua errespetatuko du. Horrela, bada, euskaraz zuzenduko zaie euskarazko harreman aukera espresuki adierazi dutenei.

Hizkuntza aukera hori espresuki adierazi ez duten erakunde pribatuekin, oro har ele bietan bideratuko da harremana.

### **5.2.3. UDAL BAIMENAK ETA LIZENTZIAK**

Espazio publikoetan antolatzen diren ikuskizunetan, festetan eta bestelako ekimenetan (feriak, barrakak...) idatzi, iragarki eta txartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera, eta, beraz, horiek muntatzeko baimena emateko baldintzen artean, hori ere azalduko da eta hala jakinaraziko zaie ikuskizun eta festetako arduradunei. Fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu eta beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu dagokion udal lansailak.

Jabari publikoaren erabilera berezia eta pribatiboa baimentzeko tituluetan klausula egokiak txertatuko dira kontsumitzaileei eta erabiltzaileei idatziz ematen zaizkien informazioa eta segurtasun-abisua euskaraz ere idatz eta komunika daitezen, zerbitzuen erabiltzaile eta kontsumitzaileen hizkuntza eskubideei buruzko araubidea betez.

Obra baimenak ematerakoan baldintza moduan eskatuko da ageriko elementuetan euskararen presentzia ziurtatzea. Horren jarraipena dagokion lansailak egingo du.

Sailkatutako jardueri dagokienez, jarduera lizentzia eske nahiz jarduera berri baten hasiera aurrez komunikatzera datorrenari, jarduerarekin lotura daukaten eta indarrean dauden hizkuntza normalizaziorako diru laguntza guztien berri emango zaio: errotulazioa, irudi korporatiboa...

Andoainen geraleku edo paradaren bat duten garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz ere egin daitezen eskatuko die garraio publikoetako arduradunei Andoaingo Udalak, indarrean dagoen hizkuntza legeria betez.

### **5.3. UDAL BARRUKO HARREMANETAN**

Udaleko lansail eta organo guztiek –informatiboek nahiz exekutiboek- dute beren ohiko lan-hizkuntzat euskara aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori hartzen duten lansail eta organoentzat herritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ohikoa ere izango da euskara eta, ondorioz, euskaraz sortuko dute nagusiki.

Lan-hizkuntzat euskara hautatu duten sail edo administrazio-atalek, nahiz organoek eta hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileek ohikotasunez euskara erabiliko dute barruko komunikazio ezberdinetan (posta elektronikoko mezuak, bilera-deiak, lansailen arteko eskaerak, oharrak...).

#### **5.3.1. PROIEKZIO PUBLIKOA DUTEN IDATZIAK**

Proiektzio publikoa duten idatziek herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzen dituztela bermatuko da. Idatzi horien sortze hizkuntzaren arabera itzulpen zerbitzuak laguntza emango dio dagokion langileari betiere itzulpenetarako irizpideetan finkatutakoa kontuan hartuta.

Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak eta ebazpenak oro bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

#### **5.3.2. PROIEKZIO PUBLIKORIK EZ DUTEN IDATZIAK**

Proiektzio publikorik ez duten dokumentuen sortze eta tramitazio hizkuntza lansail bakoitzak erabakiko du, baina ohiko lan hizkuntzat euskara aukeratu duten lansailetan euskara izango da idatzi horietarako ohiko hizkuntza.

#### **5.3.3. BATZORDE ETA BATZARRALDIETAKO DEIALDIAK ETA AKTAK**

Udaleko organo informatiboen eta exekutiboen bilkuretako deialdien kasuan bereiztu egingo da deialdia publikoa den edo ez.

Deialdia publikoa denean (adibidez, Plenoa) bi hizkuntza ofizialetan idatziko da deialdia. Deialdi ez publikoetan, zeinetan sartzen baitira batzorde informatiboen bilerak (irekiak izan arren ez baitute izaera publikorik), euskarazko lansaila baldin bada edo euskara hautatu badu lan-hizkuntza gisa, deialdia euskaraz egingo da eta euskaraz ez dakien kideari bidaliko zaio itzulpena.

Udaleko organo informatiboen eta exekutiboen bilkuretako akten testu originaletan jasotzen diren zinegotzien mintzaldiei buruzko erreferentziak zinegotziak bileran erabili duen hizkuntza ofizialean idatziko dira, betiere, jakina, erreferentzia horiek jasotzea beharrezko bada. aktak bileretan erabili den hizkuntza ofizialean idatziko dira. Edozein

kasutan, euskaraz idatzitako proposamen edo diktamenei buruzko erabakiak, bileretan gaztelaniaz eztabaidatuak izan badira ere, euskaraz jasoko dira aktetan.

Euskara ohiko lan-hizkuntza aukeratu duten Udaleko organo informatibo nahiz exekutiboen deialdiak eta aktak euskaraz idatziko dira beharrezko den kasuetan gaztelerara itzultzearen kalterik gabe. Dagokion lansailak bere kabuz hori egitea ezinezkoa duenean, Udalaren Euskara Zerbitzua izango da indarrean dagoen legeriak herritarrei aitortzen dizkien eskubideen bermetan gaztelaniaz ere eman behar dena gaztelaniara itzultzeko laguntza emango duena.

Osoko bilkuretako deialdiak ele bietan izango dira, eta aktak, berriz, euskaraz jasoko dira, nahiz eta bertan izandako interbentzioei buruzko erreferentziak interbentzioan erabilitako hizkuntzan jasoko diren.

#### **5.3.4. BARNE FUNTZIONAMENDURAKO BESTE JARDUERA ESPARRUETAN**

Lansailtako barruko oharrak euskaraz izango dira mezuaren ulergarritasuna ziurtatzen bada.

Bestelako mezu eta inprimaki orokorretan (eskanerrak, faxak, telefonoen pantailak...) euskarazko mezua bederen bermatuko da.

Lan-kontratuak, funtzionarioen izendapenak eta nominak gutxienez euskaraz egingo dira. Nolanahi ere, hartzailearen hizkuntza aukera errespetatuko da.

## **6. KALITATEZKO KOMUNIKAZIOAK**

Kalitatezko komunikazio idatzia sustatu nahi da. Testu zuzenak eta egokiak erabiliko dira, baina bate ere hizkera argia sustatuko dugu, irizpide komunikatiboa nagusi duena. Hona hemen kalitatezko testuak idazteko irizpideak:

- Helburua komunikatzea da: hartzaileak lehen entzunaldi edo irakurraldian ulertu behar du esaten zaiona. Testuak egokia izan behar du komunikazioaren ikuspegitik.
- Testuak egitura logikoa izango du, eta egitura hori agerian geratuko da era honetako estrategiak baliatuta: izenburuak eta azpi-izenburuak, ideiak paragrafoka, lege-aipamenak oin-ohar modura...
- Testuak zuzena izan behar du.
- Hizkuntza bakoitzak badu bere esateko era: errespetatu. Nolanahi ere, administrazioko hizkera berritu, modernizatu eta herritarrengana hurbildu beharra dago.

- Idazkera eta hizkera molde eredugarriak baliatuko dira, eta komunikazioen hartzailen arabera moldatutako hizkuntza-erregistroak erabiliko.
- Arreta berezia jarriko da itzultzaile automatikoen laguntzaz itzulitako testuak gainbegiratu eta orrazterakoan, jatorrizko testuak eta xede-hizkuntzakoak gauza bera diotela bermatzeko.
- Idazkiaren diseinua zaindu, irakurgarritasuna bermatzeko.
- Udalak bi hizkuntza ofizialen erabilera ez sexista bultzatuko du.

## **7. ITZULPENGINTZA**

Itzulpengintzan ere, testuen sorkuntzan bezala, aurreko ataleko irizpideak beteko dira.

### **7.1. EUSKARAREN ERABILERA ANDOINGO UDALERRIAN BULTZATU ETA NORMALIZATZEKO ITZULPEN ZERBITZUA**

Andoingo udalerriko elkarteei eta sektore ezberdinei, beren jardunean euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko, Udalak bere Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eskura jarriko die, proiektio publikoa duten idatziak euskaraz ere emateko doako laguntza gisa, ondorengo muga hauen barruan:

- 3.600 karaktere arteko testuen itzulpena edo zuzenketa.
- Webguneei dagokienez, berriz, oinarrizko mezuen itzulpen eta zuzenketa hartuko du bere gain Euskara Zerbitzuak, ez, ordea, edukien itzulpen eta zuzenketa.

Itzulpen eta zuzenketa horiek egiteko lehentasuna erabakiko da bi irizpide hauen arabera: ekarritako testuaren proiektio publikoa batetik, eta, elkarteen kasuan euskara sustatzeko plan edo programa izatea. Euskara Zerbitzuak, betiere unean uneko lan programazio eta lan karga kontuan hartuz, ondorengo lehentasun hauek aplikatuko ditu eskatutako itzulpenak eta zuzenketak egiterakoan.

### **7.2. UDAL BARRUKO HARREMANETARAKO ITZULPEN ZERBITZUA**

Lansail bakoitzak, lan hizkuntza edozein duelarik ere, hartu beharko ditu neurriak barne harremanetako hartzaileri komunikatu edo jakinarazi behar dizkien eduki guztiak hizkuntza batean zein bestean, beharrezko den hizkuntzan, alegia, osatzeko eta bideratzeko.

Aukera dagoenean, itzulpena ez den beste bide batzuk landuko ditu lansailak berak (adibidez, ahozko edo idatzizko laburpena eginez). Dena dela, Euskara Zerbitzuak beharrezkoak diren kasuetan laguntza eta hizkuntza aholkularitza emango dio dagokion lansailari.

Erabilera planaren garapenerako funtsezko baliabideak dira Euskara Zerbitzuko itzulpen, zuzenketa eta interpretazio zerbitzuak. Horien erabilera arduratsua eta zentzuzkoa egingo da, efizientzia ekonomikoaren printzipioei jarraiki.

Nolanahi ere, bermatuko da hautetsiek jasotzen dutela euren egitekoak egoki betetzeko behar beste informazio. Ahal den guztietan sailean egindako idatzizko laburpenak edo ahozko azalpenak erabiliko dira horretarako eta, beharrezko denean, Euskara Zerbitzuaren laguntza baliatzeko aukera izango dute sailek. Beraz, dokumentuak osorik itzuliko dira afektatutako zinegotzi titularrak gestio horretan zuzenean parte hartzen duenean eta, orduan ere, osorik itzultzea ezinbesteko denean. Sail bakoitzeko zinegotzi titularrak izango du saileko dokumentazioa itzultzea eskatzeko aukera.

Udalaren itzulpen zerbitzuak une batean izan lezakeen lan-kargagatik itzulpena dagokion sailak behar duen denboran egiterik ez badago, Udaletik kanpoko itzulpen zerbitzuetara joko da eta hori egitea eta ordaintzea itzulpena behar duen sailari dagokio.

Espedienteen kudeaketako aplikazioan dauden txantilo eta dokumentu estandarizatuak euskaraz erabiltzeko egokituko dira, bai hizkuntza kalitatearen ikuspegitik (hizkera argia erabiliz, alegia), bai euskarazko eredia (zutabe bakarrekoa) erabiltzea erraztuz.

Euskara Zerbitzuak funtzionamendu egokirako baliabide teknikoak jarriko ditu lansailen eta langileen eskura, hala nola, itzulpen memoriak. Lansailek itzulpen memoriak erabili ahal izango dituzte eta Euskara Zerbitzuaren ardura izango da itzulpen memoria egunean mantentzea eta elikatzea.

## **8. LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORRA**

Andoaingo Udalak langileentzat ikastaroren bat antolatzerakoan (barne nahiz kanpoko eskaintza egiterakoan) irizpide hauen arabera jokatu du:

- Irizpide orokor gisa, kontuan izanik hizkuntza eskakizunen betetze-maila oso altua dela, nagusiki euskarazko prestakuntza saioak antolatuko ditu Udalak.
- Kanpo-ikastaroetan (IVAP, GFA...) hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileek, izan lan-hizkuntza euskara duten sailtakoak nahiz atal elebidunetakoak, aukera berdinean euskarazkoan parte hartuko dute. Helburu hori lortzeko beharrezko diren neurriak hartuko ditu Langileria sailak eta jarraipena egingo die.
- Hirugarren hizkuntza-eskakizuna edo laugarrena egiaztatu duten langileek euskaraz egingo dituzte prestakuntza-ikastaroak, euskarazkorik baden guztietan.
- Lehenengo hizkuntza-eskakizuna edo bigarrena egiaztatu dituzten langileek prestakuntza ikastaroak euskaraz egin ditzaten sustatuko da, ikastaroen ezaugarrien arabera.



- Udalak neurriak hartuko ditu bere zerbitzura lan egiten duten pertsonen euskara ikasi, hobetu eta optimiza dezaten.

## **9. AGINTARI POLITIKOEN HIZKUNTZA-GAITASUNA**

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 25.9 artikuluan jasotzen duenari jarraiki udal hautetsiek hizkuntza ofizialetan, ahozkoan eta idatzizkoan, gutxienez behar besteko ulermen maila lortzea sustatzeko neurriak hartuko ditu Andoaingo Udalak.

Honako irizpideen arabera jokatuko da agintari politikoaren hizkuntza-gaitasunari dagokionez:

- Ordezkeri politikoek euskaltegiara joateko aukera izango dute hautetsi gisa dituzten betebeharrei aurre egiteko behar besteko ulermen maila gutxienez lortu arte.
- Udalean euskara maila hobetzeko antolatzen diren mintegietan parte hartu ahal izango dute eta bere lana euskaraz egin ahal izateko Udalaren gainerako baliabideak erabiltzeko aukera izango dute.

## **10. ERREGISTROA**

Udaletxera sartzen diren nahiz Udaletxetik ateratzen diren dokumentuak idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira Udal Erregistroan, Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legeko 7. artikuluan xedatuaren arabera. Bi hizkuntza ofizialetan idatzita daudenak euskaraz inskribatuko dira.

Inskripzioa edo idazpena edozein hizkuntzatan egonik ere, ziurtagiriak euskaraz edo ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) egingo dira, interesdunak esaktzen duen moduan.

## **11. DIRULAGUNTZAK**

### **11.1. DIRULAGUNTZAK UDALERRIKO KULTUR, KIROL ETA AISI ELKARTEEI**

Kultur, kirol eta aisialdi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioz, Andoaingo Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik, betiere mezuaren hartzaileen hizkuntza ezaugarriak kontuan hartuz. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten

diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehenetsua, euskarazko adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak baitira.

Dirulaguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek artikulua honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko.

#### **11.2. DIRULAGUNTZAK UDALERRIKO ENPRESA ETA MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUEI**

Andoaingo Udalak hainbat diru laguntza emango ditu enpresek zein merkatariek udalerrian egiten dituzten hainbat jardueratan euskararen erabilera areagotzeko. Diru laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.

#### **12. INSTALAZIOEN ETA MATERIALAREN LAGAPENAK**

Udal baimen eta lizentziatarako nahiz udal diru laguntzetarako xedaturiko hizkuntza baldintzak bete beharko dira udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere. Udalak, beraz, pilotalekua, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.

#### **13. ARGITALPENAK, IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA**

Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei, eta eskubide hori bermatzeko bere esku dauden neurriak hartuko ditu Udalak kasu bakoitzean.

Euskaraz argitaratuko dira ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek hala eskatzen dutenean (bereziki haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisi ospakizunetan). Udal aldizkariaren kasuan, hitzaurrean bi hizkuntzek izango dute presentzia. Elkarrizketa eta erreportajeak batez ere euskaraz izango dira eta kasu horietan gaztelaniazko laburpena egingo da. Albiste laburrak euskaraz eta gaztelaniaz tartekatuko dira eta albisteen izenburua euskaraz izango da.

Ikus-entzunezkoen kasuan azpigituluekin jotatuko da. Audioa euskarazkoa denean gaztelaniaz jarriko dira azpigituluak eta, alderantziz, audioa gaztelaniazkoa denean euskarazko azpigituluak jarriko dira.

Ingurune digitalean, sare sozialei dagokienez kanal bakarraren alde egingo du Andoaingo Udalak, eta bere eskumenekoak diren webgune eta sare sozialetan irizpide hauek jarraituko ditu. Oro har, aurrez aurreko harremanetan den bezala, euskararen aldeko jokabide positiboko neurri sustatzaileak hartuko ditu Udalak:

1. Ekimenaren izaerak edota hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek hala eskatzen dutenean euskara erabiliko da.
2. BIOa edo kanalari buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, euskarazkoa nabarmenduta.
3. Twitterren kasuan euskara eta gaztelania kanal berean joango dira eta, hurrenkerari dagokionez, gaztelaniazkoa publikatuko da aurrena eta euskarazkoa ondoren, modu horretara euskarazkoa lehen postuan agertuko delarik behin bertsio biak argitara eman ondoren.
4. Euskal hiztuna den herritarrari eta euskarazko ulermen maila nahikoa duen orori euskarazko bertsiora sartzeko aukerak errazteko, neurri sustatzaile gisa, euskarazko bertsiora sartzeko esteka txertatuko da gaztelaniazko bertsioan.
5. Birtxiotzeak eta elkarrizketak jatorrizko hizkuntzan egingo dira, jatorrizko parte-hartzaileak erabilitako hizkuntzan.
6. Udalak sortu behar dituztenean argazki izenak, hashtagak edo nomenklaturak, euskarazkoak aukeratuko ditu hartzailearen hizkuntza-ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean.

#### **14. KOMUNIKAZIO TELEMATIKOA: TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK**

Euskara lan hizkuntza gisa erositasunez erabiltzeko ezinbesteko laguntza diren tresna teknologikoak ezarriko dira Udalaren sare informatikoko terminal guztietan (zuzentzaile ortografikoa, oinarrizko hiztegiarako sarbide zuzena, hizkuntza erabilera egokietarako kontsultategiak eta abar).

Ordenagailuak, berauen inprimagailu eta programak, eta Andoaingo Udalean erabiltzeko eskuratutako materiala euskaraz funtzionatzeko egokitua izan dadin neurriak hartuko ditu Udalak, eta bere esku dagoen neurrian beti bermatuko du aipatutako hizkuntza aukera.

Andoaingo Udalean programa informatiko komertzial edo orokorrak instalatzerakoan, horiek euskarazko bertsioa badute, bertsio hori instalatuko zaie langile guztiei. Hala ere, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten langileek aukera izango dute, beharrezkoa irizten badiote eta hala eskatuz gero, gaztelerazko bertsioa instalatzeko.

Neurrira egindako aplikazioak erosterakoan Andoaingo Udalak neurriak hartuko ditu aplikazio horiek hizkuntza-aukera izan dezaten, eta hala eskatuko dio dagokion hornitzaileari.

Andoaingo Udalaren eskumenean diren internet eta intranet sareetako edukiak, oro har, euskaraz eta gazteleraz kontsultatzeko moduan egongo dira. Andoaingo Udalaren web gunera eta lansailletako ataletara sartzean, euskarazko orria agertuko da lehenbizi, eta orri horretan bertan egongo da gaztelera eta gainerako hizkuntzak hautatzeko aukera, horrelakorik badago.

Internet eta intranet sareen bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz eta gazteleraz egiteko moduan egongo dira.

Administrazioaren ohiko prozeduraz kanpo, Andoaingo Udaleko lansailek beren web guneetan kanpoan sortutako edukiak jartzen dituztenean, irizpide orokor hauek jarraituko dira: bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko dira, berdintasun printzipioa oinarri harturik. Udaleko lansailek bakoitzaren ardura izango da oreka hori ziurtatzea.

#### **15. ERROTULAZIO FINKOA ETA NOIZBEHINKAKO OHARRAK**

Udalaren egoitza, bulego zein hirugarren batzuei lagatako lokal guztietako kanpoaldeko nahiz barrualdeko errotulazio finkoa, aldakorra zein noizbehinkako oharrak (askotan paperean egindakoak), bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiltzearen hautua egingo da:

- Errotulu, seinale eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.
- Mezua erraz ulertzen denean.
- Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek hala eskatzen dutenean.

#### **16. IRAGARKIAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK**

Hedabideetan argitaratzen diren iragarkiak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, ahal den neurrian euskarazko mezua lehenetsiko delarik. Era berean, hedabideetara bidaltzen diren ohar eta informazioak ere euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira, eta informazio horien berri bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko zaie komunikabideei.

Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen ezaugarriek eskatzen dutenean euskara bakarrik erabiliko da.

#### **17. HAUTAKETA PROBAK**

Hautaketa probetan, prozesu osoan zehar bermatuko da euskarazko jarduna, beti eta ororen gaineratik errespetatuko delarik hautagaien hizkuntza hautua. Epaimahaiaren osaera erabakitzerakoan nahiz dokumentazioaren prestaketan ezinbestez aintzat hartuko den irizpidea izango da hizkuntzarena. Epaimahaiaren guztiak euskal hiztunak izatea ezinezkoa denean, epaimahaikideek neurriak hartuko dituzte euskara hautatu duten euskal hiztunei kalterik eragin gabe aritzeko.

Hautaketa probetarako izena emateko garaian hautagaiari beti emango zaio probak euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera. Nolanahi ere, probak egin aurretik bere hizkuntza-hautua aldatzeko eskubidea aitortuko zaio.

Ahozko azalpenak euskaraz izango dira hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek hala eskatzen badute; gainerakoetan, euskaraz arituko dira lehenengo eta gaztelaniaz ondoren.

Herritar ororen nahiz izena emandako hautagaien kontsultak erantzuteko behar besteko euskara-maila duen langile euskal hiztuna jarriko du Udalak.

#### **18. KUDEAKETA**

Sail bakoitzaren ardura izango da hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau hauek bere esparruan ezagutzen eta betetzen direla bermatzea; hori guztia, Andoaingo Udaleko Euskararen Erabilera Planean jasotakoa aintzat harturik.

Euskara Saila izango da, kasua balitz, irizpide hauen aplikaziorako zehaztapenak emango dituena, betiere indarrean dagoen araudiaren arabera.